

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/68

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bostgarren urtea — Pamplona. Setiembre-1970 — Iraila — Iruña. 55 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

BORDEL BERTSULARIA

Bi aldiz hiltzen omen dira gizon ospetsuak —zion Arrue jaunak Luzaideko hitzaldian—. gorputzari lur ematean eta beren izena gizonen ahotan ixiltzean. Bertsulari zahar bati omenaldia egin diote luzaidarrak. Ehun urte inguruan dabil haren gorputzari lurra emanik, bainan bere izen haundia ez da hil; eta herri-tarrak ez diote hiltzen utzi nahi. Harri marratu ederra ezarri diote bertsulariaren sort-etxeari:

Bordel Bertsularia
(1792 - 1879)

Hemendik hartutako izena Ohorez ereman zuen gizona.


Luzaide Valcarlos dela nork ez daki gure artean! Ibaineta-ko bortua luze eta nahasia delarik ez zitzaigun hain gaistoa iduritu. Garai bateko estutasun ito hura galdu du bideak eta ez da hain bildur-garri. Mogimendu haundia zen abuztuaren 23-an eta uda guzian hala izan omen da. Mila bost ehun karrosa noiz-nahi. Aduana zoragarri bat egiten ari dira. Europa-ko bidea izan laike egun batean Luzaide.

Meza Nagusiko han ginen Iruñetik joanak. Eskuaraz dena, otoitz eta kantiak, berdin jaun Erretoraren predikia; eder da Luzaide-ko meza. Bolantak ezker eskuin, beren makilak eskutan, elizaren er-

dian. Bihotz kilika berexia ba du Bolanten mezak. Plaza giroa eta dantzariak elizan ikustea nortasun haundiko gauza da. Gizonaren bizibide osoa, lana eta besta, gorputz eta arima Jainko bidez dabilera erraitea bezala. Otoitz ixila. Denak gazteak ziren aurtengo Bolantak. Bizardun zombait ere bai. Gauza zaharren aurpegi berria. Iraupena.

BORDELIA

Bazterretxe zaharra da Luzaiden Bordelia. Zaharra eta azkarra. Berak eman zion izena Juan Echamendi bertsulariari, han bai zen sortu eta bizi. Gutitan gertatutko da aurtengoa; bordeltarrak ziren beren festako suieta nagusi. Juan Cruz Arrosagaray, gaztedanik Kalifornian bizi zena ginuen bertsulari. Bere aitaxoren odola zainetan darumala zion jendeak. Bolantak gidatu eta mezan epistola irakurri ondoan, bere buruz zituen Ayundamendutik bertze orri batean ematen ditugun bertsuak kantatu. Mereximen-



du du hainbertze urteren buruan ez bai du ez eskuara eta ez bere herriarenganako atxikimendua galdu.

Eta meza ondoan Bordeleko haur ttipi batek bataioko urak hartu zituen; gizaldi berriak aitaxi zaharraren omenaldia ikusi.

Harria agertzeko garaian negarrari eman nahi zion denborak; ez zen konten. Nor-

baitek zionez, uda guzian zapi bat egunez ikusi dute bakarrik bere argitasun osoan iruzkia. Hortako ziren Etxexuriko belarrak sartu gabe pentzean. Gero, Bolantak dantzari hasi orduko euria ginuen burutik behera. Halare, eta hau da politena, ixiltasun ederrean segitu zituen herriak Juan Cruz Arrosagaray-en bertsu xarmantak. Denbora txarrari aurpegi ona.

Atsaldean Arneguy-ko festak. Han ziren, berriz ere, Luzaideko dantzariak eta mugarik ez balitz bezala bi herriak batean.

GEROA

Egun ona eta festa polita izan zen Luzaidekoa. Hots haundirik gabe bainan ongi egin ziren gauzak. Kezka txikien batzuk sumatu genituen bakarrik: herria ttipituz omen dijoa. Haur gutxi, eskolak hutsik gelditzen ari, gaztedia igeska eta igande atsaldetan arimarik ez herriko plazan. Etorkizun iluna zombaitzun ustez.

Eta denbora berean sekula baino argiago kausitu ditugu baztarrak. Txukun eta garbi herri inguruak; dena berde, oiha eta pentzeak, udaberri baten gaztetasuna bezala. Ez ote da gure aldetik begiak etsi eta laino beltzen lekutu nahia? Bide eder eta aduana berriak ez ote dio Luzaideri geroaren giltza emango.

Bigarren kezka eskuararena. Gaztetan eskuara galtzen dijoala iduritu zaigu. Eskual kutsurik gabeko Luzaide bat, arimarik gabeko gorputz hila izango litzake munduan. Zertako Manezaundi eta Bordel bertsularia? Zertako harri-marra eta ohore guziak?

Bi gisetara hiltzeko arriskuan daude herriak, gure he-

riak beintzat: odol ustuz, jenderik gabe gelditu-ta; edo izpirituz, beren nortasuna eta izate berexia galdua.

Bizi bedi gorputz eta ariman Luzaideko herria.


J. M. Satrustegui


LVZAIDE
· KO ·



· ERRIA ·


NAFARRO
· KO ·



· ATARIA ·

MAS DE 15.000 PERSONAS HABLAN VASCUENCE EN PAMPLONA CIUDAD



ES NECESARIO FACILITARLES NO SOLO MISAS EN SU LENGUA, SINO TAMBIEN CONFESORES EN LUGARES FIJOS

El problema está patente. Un problema socio-religioso, bien lejos de estar suficientemente atendido en Pamplona, comenzando en el Hospital Provincial.

Si a un castellano, que viene a la capital, se le hace difícil mantener el ritmo religioso que llevaba en su pueblo, a un vasco (1) se le hace doble más difícil; porque la mayoría de ellos aprenden a manejar, mejor o peor, el castellano de la calle y del bar, pero no el de los Sacramentos.

¿Resultado? Muchos de ellos, que seguirían confesándose en vascuence,

dejan de hacerlo, porque no se les ofrecen facilidades para ello.

Hay responsables que se excusan diciendo que ya entienden el castellano y que ya se confesarán si quieren; yo, que he palpado de cerca la dificultad de muchos de ellos, digo que no ocurre así; si en sus pueblos se confesaban tres o cuatro veces al año, ahora acaso una vez, a trancas y barrancas, y quedándose en el alma un escorzillo, de que no se han confesado a satisfacción. Y es que no se atreven: les impone: no es como hablar con un compañero en el bar o en la calle.


Hay quienes juzgan que el fomentar estas misas es pura política. Dios les perdone a los que juzgan así este medio apostólico, porque además de no respetar la fama del prójimo, recaen en una especie de pecado contra el Espi-

ritu Santo, tomando por malo lo bueno. El descuidar a esas almas por esta excusa no es admisible en un apóstol celoso y comprensivo maneras ancestrales de manifestarse expresivamente ante la divinidad.

En conclusión: la asistencia a sivo; y si entre los asistentes se dan acaso algunos de intención no tan religiosa, responsables hay que procurarán enderezársela; pero no por eso se ha de privar a los demás de un medio pastoral tan excelente.

El fomentar la implantación de estas misas, que todavía está en sus comienzos, no es un apriorismo; es una exigencia apostólica, que arranca de una experiencia vivida.

Además, la lengua materna tiene influjos psicológicos, que no posee otra lengua aprendida, aunque se



ELIZAREN ITZA

ELIZA GAURKO MUNDUAN

LANGILLE ARROTZAK: Ez ditezke berexi, bertakoengandik lan sarian ezta ere lan aieran, personak bezala artu behar dira, ez lanerako tresnak bezala.

Lagundu behar zaiete, beren familikoak ekartzen, ta bizileku itxuraskoa prestatzen, baita bertako gizartean sarrera prestu bat eskeini. Ala ere, bakoitzaren errialdean irabazbideak sortzea litzake oherena.

GIZA-LANA: Ekonomi giroan lehenbiziko malla dauka giza-lanak, beste gañerako gauzetaz tresnez bezala baliatzen da-ta, izadiaren gauzei bere marka ezartzen die ta bere naierara zuzentzen ditu. Gizonak, geienean bere lanarekin irabazten du bere ta etxeko bizibidea, lanaren bidez elkartzen da senideekin, maitasun bero bat agertu, ta Jainko Egilearen gauzak landu. Ez ori bakarrik, beren lana Jainkoari eskeintzearekin, Jesukristo Eroslearen lan-kide egiten dira, goi-goiko mallan jarri baitzuen Berak lana, bere eskuz. Nazareten langile eginik. Gizon orok daukate lan egiteko eskubidea, ta gizarteak bakoitzari lan egoki bat billatzeko errez-tasuna eman bear die.

Lan saria berrix, gizonari ta bere familiari itxurazko bizimodu bat eramateko aia izan behar du, ez jan ta jantzirako bakarrik, lagun artean, ikastaroan ta espirituaren artu emanetan gizonki jokatzeo eran.

Elkarrekin lan eginez, sortu ta aurreratzen dute gizonak ekonomi giroa, inoren kaltetan lana eretzea bidegabekeri bat litzake. Zoritxarrez, sarritan, langilleak beren lanaren jopu ta mendeko jartzen diren gaitz ta gorabeak, batez ere amaren eginkizunak ez eman. Persona guzien gaitetik aintzat artu behar da, familian sortzen diren gaitz ta goraberak, baztez ere amaren eginkizunak ez ditezke oinperatu, produzioak eskatzen duela-ta. Aixetzeko eskubidea daukate lan egin ondoan, ta naiko beta eman behar zaie, familiko bizitzarako, religioko ta gizarteko eginkizunetarako baita ikastean beren almenak lantzeko, eguneroko lanak astirik ez diote-ta ematen ortarako.

la sepa con bastante perfección. Y en los cantos y en otras peculiaridades secundarias, se puede dar cabida al carácter vasco, que tiene estas misas les va dando confianza a los vascos (1), para que vengán también a confesarse cuando les

pareciere oportuno, según sus antiguas costumbres. LIZASO

(1) Euskeraz: euskalduna euskeraz dakiena.

(«La Verdad» izeneko astekorotik artua).

UDAZKENA EUSKALERRIKO LEIOA

Udazkena. Ta, lege zar batek dionez: goizak berandu, illunabarrak beilaxe, eguzkia murrizt.

Udazkena. Lendabiziko otzak. Zugaitzako osto oriak lurrera. Uso pasa. Eize sasoi. Udazkena.

—oOo—

Nun ote zaudete, uda-berriko goiz alaitsuak?, garagarrilako arratsalde berotsuak?, illunabar zorionsuak?

Nun, udako eguzki gorri?, april-leko arrosa gorri?, maiatzeko lili garbi?

Sorturik, txikiak. Bizirik, erogarriak. Zaurturik, zimelkeriak. Bai eder, mots baizik zuen biziak!!

Mundutarrok ikusirik; gizonok mozturik; il zifaten, gure arnas zikiñaz zapuzturik. Zuek eraman de-zutena, gaur ekarri nai degu gure-gana, eziñ... udazkena!

—oOo—

—Ama: zergaitik, ba, garai motel ontan zugaitzak larrurritzen dira?

—Udazkena, seme. Artaz.

—Ama: atzo gure etxe ingurua dana lore ta margolaz betea zegoan. Zeiñ polita! Gaur, zergaitik ezdago beriala? Nork ankapetu ditu lore oiek?


—Neguako otzak, seme. Goizeko izotzak. Eguzki-ordu motzak. Illunabarretako aize zorrotzak...

—Ta?

—Ta... gizonen asmo motzak; neskatillen «ez-lotsak»; pakearen eriotzak!

—oOo—

Bazenezkizun, adiskide? Bazenezkizun... ez; ez dut uste. Oraindik, beintzat, egunerokoak ez dute alakorik banatu. Atsoak ezta. Jakin-



tsuak aitortu ere ez. Baño, nik erran bear dizuet: emendik aintziñera, urrilla ta azaro illabeteetan eukiko degu uda. Ta negua, maiatzean. Bai gizona, bai. Ez dezu ikusten ala?

—Ba, egualdiak bere «kalendarioa» trukatu ote, edo...

—Ez; ez. Badakizu zer gertatzen dan? Egualdia «ye-ye» biurtu zaigula. Ta, ille aundi oien legez, dana alrebes iokatu bear du... Erran nai nuen: lengoko iokaeratik biur.

—Ia, ia. Alako zerbait gertatzen zala eguzki inguru ortan amestua baneukan. Orain igerritzen diot!!

—oOo—

Udazkena. Aize epela. Munduko eritasunak sendatu beharrez.

Udazkena. Gaztaiñ ta ezkur lurre-ra. Txerriak mendiz-mendi; lokarrek gabe...; gizonen ordez?

Udazkena. Ezkillak. Arantzako errian. Xabier, apaiz gazte aren orolmengan. Erruki, Jauna, zugan agertzean!!

Udazken tristeak!!

ANTTON

AITA VILLASANTE, FRANTZISKOTARRA, EUSKALTZAINDIAREN LEHENDAKARI BERRIA

Ioan den Uztailaren 29-an, Donostiko Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, Euskal Akademiak bere Zuzendari, bere Buru berria izendatu zuen. Aita Luis Villasante, Lehendakaria gertatu zen, amaika boto bere alde izanik.

Aita Luis Villasante Kortabitarte Gernikan jaio zan 1920-an. Arantzazuko Prailetegiari bizi da Teologia-irakaslea izanik. Euskal idazlari ona da. Bere liburirik ezagutuena hauek dira: «Kataliñen gogoetak», «Arso Erretorearen erakustaldiak», «Aitonaren uzta», «Jesukristo», «Jainkoa», euskeraz idatziak direnak, eta «Historia de la Literatura Vasca», erderzakoen artean.

Aita Villasante euskararen batasunaren aldeko lanak eginak ditu eta momenturik egokienean Euskaltzaindiaren Zuzendaritzara eldu dala koan nago.

Eukeraren onerako lan on bat egin dezala desiatzen dugu.

ANTONIO VALVERDE JAUNA IL ZAIGU

Antonio Valverde jauna Kastillan sortua bazan ere eta bere odola eta jatorria Euskalerritik kanpo izan arren Gipuzkoara bizitzera etorri zan aspaldin. Oiarzungo herrira eta osoan euskaldundu zitzaigun. Gizon trebe, argi, apal, ikasia, paregabea. Ahaztu eziñeko euskaldun berri zanek ejenpluederra euskaldun epelei, edo Euskal Herrian jaio direnei eman zuten. Berak menderatu zuen euskera, euskalduna bere letra guziekin esan ahal izateko. Goian Bego Antonio Valverde gizon-gizona eta euskaldun berri zintzo zana.

NAFARROAKO DIPUTAZIOEAK EUSKALTZAINDIARI BERE DIRU-LAGUNTZA GEITU DIO

Denok dakigun bezala euskaltzaindiaren sortzetik Euskal Herriko lau Diputazioeek Euskaltzaindia bere babesean, bere ardurapean izan onhartu zuten. Aurtenguzko Diputazioeak bere urteroko diru-laguntza amabost mila pezetaz geigotatu du. Hemendik aurrean ogeitabost mila pezeta urteko emango dizkio. Begi onez ikusten dugu.

MAURICIO ELIZALDE BAZTANDAR TXISTULARIA

Aspaldiko kontua da Baztango Balleko Aintzindariari Txistulari on-ona den Mauricio Elizalde jaunari omenaldi bat egiteko eskatu niela. Denbora pasa-ta begira orain Baxarraren zenbait lerro ZERUKO ARGIA-n azalduak Mauricio Elizalderi eskeiniak:

«Ogeitamar urte bete dira aurtenguzko aldiz Elizalde Elizondora azaldu zala erriko jai nagusiak alaitzera.

Geroztik, urterik utsegin gabe, an dute beti Santiotan. Nik ez dakit Elizalde musikaz jakintsu dan ala ez jakin da. Elizalderen txistu otsak badu alako eus-

kal kutsu berezi bat, mendi igurtzi aparteko bat. Zein gozo sartzen den belarrietan barrena!

Bijoa au Elizondoko agintarientzat: Maurizio Elizalde ez ote luke omenalde erriko bat merezi?».

Eseroan gaude Baztango Balleko omenaldi hau onhartuko duenik.

«BATASUNAREN KUTXA» IZENENKO LIBURU BERRIA

Donostiko LUR editorialak «BATASUNAREN KUTXA» delako liburu berri bat argitaratu du. Oso interesgarria da liburun hontan euskera literarioaren batasuna egiteko bideak azaldu baitdira.

Liburu hontan berean bost milako euskal hitz-zerrenda bat ere dago.

EUSKERAREN BATASUNA DELA-TA

ZERUKO ARGIA-n argitaratu zan euskararen batasunari buruzko «ERABAKI NAGUSIA» bati erantzunez (arrapostu eginez) eta gauzak bere lekuan ezarrit Bizkaiko «ANAITASUNA» delako aldizkari maiteak honako iskribua agertu du:

«ZERUKO ARGIA aldizkariaren 383-384 zenbakian (numeruan), lehenengo orrialdean «ERABAKI NAGUSIA» izenburuarekin, HERRIA, GOIZ, ARGIA, ZERUKO ARGIA, AGUR, KARMEK, KILI-KILI, LOYOLA IRRATIAK, LA VOZ DE GIPUZKOA-n irratit saioak egiten dituztenak izenpeturik (sinaturik), esaten da: «Euskeraren batasuna egiten atera goaz...». Zer tan eta nolako «erriak erakutsiko digu». «Erria» esatean, hau esan nahi da: «ikasten jandun gabe euskera dakien erria».

Gure uste apalean, esan beharra dago, «erriak erakutsiko digu» hitzok zeharo konzeptu abstrakto bai direla, airean eta hutsean gelditzen direnak. Euskeraren batasuna, guk dakigunez, hizkuntzalariek egin behar dute, eta EGITEN ASIAK DIRA ASPALDIN, biologiazko zientzia biologoek eginen dute bezala, gorputzaren errea lidada kontuan edukirik.

Erabagi Nagusi hori euskal kazeta (aldizkaria) batzuek hartzean, guri ez daukate eritziarik eskatu, ezta hartzekotan zirenik esan ere. Goian aipatutako aldizkariak gainera, badira beste aldizkari batzuk Euskal Herrian: EUSKERA (Euskaltzaindiaren lan eta agiriak), EGAN, JAKIN, PRINCIPE DE VIANA, JAUNAREN DEIA, OTOIZLARI, GURE HERRIA, DANTZARI, TXISTULARI, ARANZAZU, REDENCION.

Erabagi Nagusi horren aurrean, gure hizkuntzalariek zeharo harriturik gelditu dira nonbait. Antza denez, haiek ez dute ezer egin orain arte, eta aurrerantzean ere ez dadukate zer eginik, «erria» izeneko jaun baten eskuetan gelditu baita beren eginkizun berezia».

Idazlan hau ongi esana baitdago, guk ere hitzez hitz, sinatzen dugu dena.

IKUSLE

Orriaga'ko Amari



«Oiu bat aitua izan da
Eskualdun mendien artetik...»
Biotzetan bezik gorde ta
Gehio atxiki eziniik:
nehon ez baita
maite solasik
Nor bere amaren berdinik.

Lanoz gorde zuten oihanak
Gure menditako kafia
Etzezatzen miru ohoinak
Malkoz busti xori begia:
begi laztanak,
kafi tipia
Biotz aundien lokarria.

Yelos ziren NEGU luzeak
Orriaga'ko lanoari...
Ekar zituzten elurteak
Eta elurrak, elurrari;
—lodi pentzeak
oihanak zuri—
Garbitasunez beteari.

Liliz-lili UDABERRIAN
Gauak ba-dute samin gaizta
Nigar egiten ilunpian...
Ta belar guzieren ihintza
argi sendian
delaik mintza
Nori daike bere eskaintza?

Zeru garbi mendi gainian;
Xoriek josteta luzea...
Eguzki printzak oihanian
Argitzeko pago-bidea
UDA bizian
itzal beteak:
Eskual jenden bide maitea.

«Oiu bat aitua izan da
Eskualdun mendien artetik...»
(Astobizkarreko kantua)

Arto zuri bizar-gorriak
Urrez bezi du LARRAZKENA
Ta buluzi dira pentziak
Emaiteko fruitu oberena
Eskual Erriak
bil-zezakena
Orriaga'ko Amarena.

Noizbait inguruko mendiak
Zilarrak balira bezain fin
Jo dituzte joale guziak
Beren arrizko mihiekien.
Denen kantiak
dute bat egin
Aize guzieren egalekin.

Zazpi ehun urteko kantua
Ago betean du iturriak...
Aments aundi batek lekua
Erraiten du bere ur garbiak:
Aments saindua
fedez betiak
Gorde dituen erriak.

«Oiu bat aitua izan da
Eskualdun mendien artetik...»
Biotzetan bezik gorde ta
Gehio atxiki eziniik...
Nehon ez baita
Eskual izenik
Orriaga bezain aundirik.

EUSKALTZAINDIAREN OHARRA

Joan dan Uztailaren 29-an, Donostian, Guipuzkoako Diputazioaren Jauregian, euskaltzain osoen arteko batzarrean, ikusirik 1968-ko Arantzazuko batzar eta erabakier buruz, iritzi desberdinak daudela, erabaki zen euskal aldizkari guztietara ohar bat bidaltzea argituaz zenbait puntu: a) Arantzazuko batzar hura, Euskaltzaindiarena zen, eta ez zenbait idazleena b) Han irakurri ziran lanak, Euskaltzaindiak Euskaltzaindikoei eskatuak ziren d) Azkenean han irakurritako agiria, bertan ziren jaun euskaltzain osoen artean harturiko erabakia zen.

«LITERATURA EUSKERAREN
BATASUNARI BURUZ
EUSKALTZAINDIAREN
AGIRIA

Arantzazuko billeren ondorean, han ziran euskaltzainak elkarturik argi-bide hauek eman zituzten.

Arantzazuko batzarrea egin ondoren, Euskaltzaindiak esker-erak agertu nahi dizkie etorri diren nahiz beren iritziak bidali dituzten guztiei.

Lehenik ikusi duguna da guztion ustez gure hizkuntzaren batasuna behar-beharrezkoa dugula. Batasuna noski ez da. Euskaltzaindiak egin dezakean gauza, eta are gutxiago bat-batean egin dezakeana. Batasun hori, euskera idatzia batasunaz mintzatu geranez gero, euskal-idazle eta irakasleen eskuetan dago, Euskaltzaindia gidari eta laguntzaile dutelarik.

Arantzazun izan diren eta ez diren euskaltzaleak argibide bat izan dezaten, Euskaltzaindiak geroago eta astiroago argitarako dituen erabaki eta lanen aurre-erapena agertu nahi du orain.

1) Ortografiaren hortarako hautatu zen batzarreko adierazi dituen puntu gehienak onhartuak izan dira, ikusi dugunez.

2) H-ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeela Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzen astea.

Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango.

3) Morfologiaz, izenen erabileraz batzarreko prestatu duen aintzinkana puntu nagusietan oinharri bezala hartuak jokatu-ko du, aditzarekikoa beste aldi baterako utzia.

4) Azertu dira, orobat, batzarreko euskal-hitz zahar eta berrien formaz gertatu dituen lanak, gero ere hori bide berretatik hobeki lantzeko asmoz. Atsegin hartu du Euskaltzaindiak elkar-hizketa honetan agertu den giroaz, jendetasunaz eta elkar lanerako gogoaz eta uste du gero ere guztion laguntzarekin, bere eginkizuna beteko duela. Hortan saiatuko dela.

EUSKALTZAINDIA

Arantzazu-Oñati, 1968
urriaren 5-ean.

Bilbon, 1970-eko Abuztuaren
6-an.

LESAKA'tik

Lesakar zintzoa dan, «Huarte» baserriko seme azkar DAVID ARAMBURU jaunak, euskal odol sukartsua bere biotzean daukala, Ameriketako Kaliforniatik, bertso egoki batzuek bialdutzen dizkigu Euskal-Erriko pillotarien txapelketari buruz.

Bertso batzuek jartzera nua biotzan erdi-erditik, euskera oaindik maite dedala erakutsiziatatik; kantu lanian naiz gutxi jakin bai euskaldunaren egitik, aitaik eta amak erakutsiko izkuntzan txiki-txikitik.

Emeretzi eun pasatu eta irurogei-ta-amar urtez Naparruako txoko polita pelotak jo du suertez; bi napar azkar jokatu dira ta biak txapela batez, kontrariua gogorra baño txapelarrikan kendu ez.

Zu bezelako baten premia aspaldi shamar bagendun, zu zeralakoz napar guztiak ze gora altxa artzen dun; bigarren urtez zerone zera Espainiako txapeldun, ikusko degu zure mark'ori urreron zefeik austen dun.

Arritutzen naiz Lajos'ek aurten izandu dun eramana, berri-berritik aurten asita irabaziz banaz-bana; zure ondora allegatzeko nunbaitere egin du lana, zuk berriz amabi tantoz utzi ainbeste aipatzen dana.

Kontrariua izandu dezu oso beso gogorkua, beste guztiok bañan atzego ibillitendu jokua; onen onena dagola aurten askok aitatutakoa, bañan txapela zuri kentzeko ezta izandu naikua.

Zu zeralakoz Napar guztiak nolako poza artzen dun, ze gizon zeran joan den urtian ondo erakutsi zendun; onen onena gauza txikia gelditu zan zure ondun, ta aurten ere kasikan igual joan den urteko modun.

«RETEGUI» maite estimatzen det badet zerbait esateko, egin dezun lan zoragarriaz naiz eskerrak emateko;

bigarren urtez txapeldun zaude, nor da gaur zuri austeko, beste okerrik ezpadaukazu bazera pixka bateko.

Alare baten bat izango da pozez edana zurekin, bañan inbidiz ari danari baterez kasorik egin; zer markak egin dituzun ondo jendiak badaki berdin, gaur zutaz gaizki mintzatzen danak naiku lan dauka berekin.

Otxek dira nere deseiuak zure lana orrentruke, egin ezkeron nere biotzak bai poza artuko luke; nagon tokitik besuak orrat luzatu al banituzke, Ameriketatik besarkada bat pozik emango nizuke.



«BORDELE-BERTSULARIAIN» BESTAKO KANTIAK, KALIFORNIATIK, 1970 ian.

AIREA: Emeretzi siglotan ezta falta anitz. (Limiten kantuenan).

Bi mila urtetara ezta falta anitz
Ogoita-amar orai aurtengo ontarik
Bertsu berri moldatzen emen hasia niz
Lan hunen egiteko galdeintza izanik
Borondate onian entsegatuko niz.

«Bordele-Bertsularia» dugu sujetian
Ohoratu beharra bere sort herrian,
Lau-ogoi-zazpi urte bizi zan mundian
Lau-ogoi-ta-ameka geroztik zeruian
Lan baliosak utzi zauzkigun joaitian.

«Bordele-Bertsularia» sort-etxe izena
Echamendi deitura aitaren emana,
Gazterikan bertsutan hartu zuen fama
Baita ere jarraiki bizi zano lana
Testimonio dugu hark egin zuena.

Besta ohorezko bat harentzat Luzaiden
Egin nahia dela barda jakin nuen,
Naiz Kalifornian urrun naizen emen
Berri xoragarriak barnarik jo ninduen
Bertsuak egin nitzan Bordelen bestaren.

Ezin errefusatu gaurko zerbitzua
Naiz bertsutan ez naiz nihun trenatua,
Naizelakotz arraza beraren fruitua
Bordele etxe berian ni ere sortua
Hargatik emanen dut lan ontan eskua.

Bestaren berri hori dutelarik jakin
Bihotza bete zeraut emozio-rekin,
Ez dut itzikan aski aberats neurekin
Erraiteko behar den sustantziarekin
«Bordele-Bertsulariak» merezi duenekin.

«Bordele-Bertsulariain» merezi-menduak
Eskual herri guzitan dira ezagutuak,
Aditu dituztenek hark eman bertsuak
Konsideratzen dutze hain manifikuak
Katisima sainduer gaur konparatuak.

«Bordele-Bertsulariak» egin zituen lanak
Urrun zabaldu zituen arrazoin zuzenak
Jende aundi ta ttipi harentzat berdinak
Fronterarrikan gabe auzo erresumak
Limitarik etzuen haren bihotz onak.

Arrazoinekin dute Bordele ohoratzen
Jakin dutelarik zoin baliosa zen,
Duda gabe arizan dira estudiatzen
Haren pareko nehor ez dela agertzen
Jakintsun aundiekin dute konparatzen.

«Bordele Bertsularia» parerik gabia
Hargatik da aurtengo bestaren bidia,
Harriz plaka egiteko da ordenatia
Hartan izkiriaturz Bordelen nonbria
Glorifikatzen dute hor bertsularia.

Luzaiden egiteko besta bat preziskia
Proposatia dela jakin dut berriki,
«Bordele Bertsularia» ohore horieki
Gora altxatzen dute errespetureki
Eta santifikatzen zeruan sainduki.

Besta xoragarri hau aurten egiteko
Norbait entsegatu da ezta dudatzeko,
Informia izan dut emen argitzeko
Ayundamendia da bestaren karguko
Jainkoak agian ditu zeruan pagatuko.

Herriko Kontseiluak, Satrusteguy lagun
Zer obra egin duten emen da ezagun,
Atsegin aundia da Luzaide-ren egun
Bordelen ixtoriak garbi eta legun
Lan hunen parekorik ez ahal da nihun.

Orai agur bat zuri, Jauna Satrusteguy
Guzien gainetikan baituzu merezi
Bordelen ixtoriak zuk atzeman garbi
Denbora jin delarik, lan hauk egin sari
Jaunak zeruan gora zaitzala ezarri.

Ontan ahantzi gabe langile prestuak
Bestaren moldatzaile jaun intresatuak
Estimagarri dira zuen zerbitzuak
Agian izanen zizte ongi pagatuak
Zeruaren erdian gure Jaun Jinkoak.

Azken bertsuan ditut nik erran beharrak
Agradatzen nau gaurko bestaren ederrak
Estimu berarekin gazte ta zaharrak
Publiko guziari milaka eskerrak
Ez ahantzi sekulan otoi LUZAIDARRAK.

J. C. ARROSAGARAY, Maiatza 14,

IKASI, MIKASI...

SEIGARRENETAZ, ORAINDIK...

—Ni gizon ezkondu berrie naiz.

—¿Zorionak! ¿Eta...?

—Juan den illeeteko «IKASI-MIKASI»n, mutillei ta neskatxei bezala, urrengoan guetzat, ezkonduentzat, konseju batzuk jarri bear litzuke.

—Lantxo ori asteko asmoan nebillen oraintxe. Lengoan bezala egingo dugu. «EZKONDU ARTE, BIZI GARBITASUNEAN», mutillei ta neskatxei esan nien bezala, zuei, ezkonduer, esango dizuet:

¿ZINTZO, ERIOTZA ARTE!

—Bein ezkondu eskeo, badakiu eriotza arte pakean bizi bear degula...

—Jakitea, ez da naiko. Majinabat ikusi ditugu, ezkongaietan musuka ta, idi zarrak bezala, batek bestiarri bultzaka, ta gero, mutur ilunekin, eikar ez ikusi naiez...

—¿Zeta amiste izango...!

—Zuri, orain, ola iruditzen zaizu, baño nere urtetara eldu baño len, arrazoa emango didazu. Ez aztu, maitetasuna sua bezalako dela. Sua, egur kozkor bat noizpin bein botatzen etzaionean litzen den bezala, maitetasuna ere... Ara, zergatik, Eliz Ama Santak, ezkon berriai esaten dien:

«Bego emaztea senarraren mende, Jainkoari bezala; senarra baita emaztearen buru, Kristo Elizaren BURU dan bezala. Senarrak, maita etzazute emazteak, Kristo Eliza maite izanik arengandik bere burua eman zun bezala, ur-bataioz eta itzez garbi ta santu eginda, Bere begitan Eliza aratz agertuazteko, iñoliako orban edo zimur edo olakorik gabe. Senarrak ere, oneia beren emazteak maite bear ditute: beren gorputzak bezala. Emaztea maite dunak, bere burua maite du. Emazteak berriz gizonari begirune bezaio...» (Etesokoai, V, 22-33).

—Beorrek aipatu ditun konseju oitan, gizona da emakumearen buru.

—Ala dio San Paulo Apostoluak, eta ala da.

—Oaiñ emakumeak diote, gizonak aiñe deela...

—Gure Erljio Santua ez diagu gizona emakumea baño geiago denik, baizik, ezkontzan, BAT eginda gelaizten direla. Aditu zer diagun Jesukristok:

«Argatik, gizonak aitamak utziko ditu ta emazteari itsatsiko zaio, ta biak aragiz BAT izango dira. Beraz, bi ez, bañan aragi BAT dira...» (Mateo, XIX, 3-6).

BAT izan eskero, ez dago aundiagorik eta txikiagorik. Baño, begiak, belarriak, agoa, eskuak eta anakak GORPUTZ BAT izan arren, beti burua, BURUA da; ala ere, gizona emakumearen BURU da, Kristo Elizaren BURU den bezala...

—Utzi zaun baa oi alde batea, ta esan beza nola maitetasuna oztu ditek.

—¿Nola oztu ditek? Pausoka, pausoka, edozein ergelkeritik asita, bakoitzak beti BEREa egin naiez, elkarrei umekeriak barkatzeko gauz ez direnien. Sua bezala, maitetasuna ere piztuazi bear da egunero...

—Bat bestian ondoan bizi eskero, ez dago gaztigatu bearrik, zer bait artzea eskiñi bearrik...

—Naiz maizenik elkarrekin bizi, batzutan bat eta bestietan bestea, joan bearko zerate zuen eginkizunetara: lanera, ferira, festetara... Kaso oietan, ez etorri beñiere ESKUTSIK. Ekarr, besterik ez bada, gure athunak zioten bezala: «gaanbelon bat, eo txotxo atzuk...»

—Gizonak ez gera oartzen txikitason oitaz.

—Ez kongaietan, oartzen ziñeten bada...

—Arrazoe do.

—Biñepin, etxian zeratela, izan zaitezte maitegarri. Etzala iñok esan: ETXIAN OTXOAK ETA KANPOAN USOAK zeratela...

—¿Oitakoak ba dee franko euskaldunen artin: tabernan itz-jariokoak eta etxin mutuk...!

—Ola asten da maitetasuna oztutzen. Gero, beti erristan, beti bekañi illunekin, ipozik esaten ez badute erregearek ziona: ¡BETI EPERRA...!

—¿Amisteree, bai? ¿Euskaldunen artin, baaldee bestien alorretaa sartzen deenak?

—¿Baditeke, baditeke...! Biñepin, bestien alorretara beiratzen dutenak...

—¿Beithu...! ¿Nok ez du beiten? ¡Itsuu ez izan eskeo...!

—Askotan, gauden mundu ontan, ezin da ez ikusi, ikusi ez bear litzekena, baño gauze bat da begi garbiakin ibiltzea, ta beste gauze bat lizunkeriz, gozartzeatik, begitza. Ara zer diagun Jesukristok:

«Nik esaten dizuet: emakume bati, IRRIKATUZ, begiretzen dionak, egin du bere biotzean aragikeria» (Mateo, V, 28).

—Nee ustez, emakumik dute kulpua guzia. ¡Aitorra txiki bat besteik ez deamate ta...!

—Ez dakit zer esan. Nere buruari maizeki esaten diot: ¿Neskatx oiek ez dute amarik, ez dute aitarik? Ta, gizon ezkonduak, bere emaztea «ferira bezala» eramaten dutenak, ¿zer nai dute? Olako lasaitasunarekin, ez da arritzekoa, noizpin bein, ezkontza loitzea, batez ere gizonen aldetik...

—Beren emazteak, ¿non thute begik? ¿Ez dee oartzen?

—Uste dut baietz, oartuko direla. Baño, ¡Soñuik ez ateratzeatik, pa-keangatik, semiengatik, malkoak dariotela, ixilik egon bear...!

—¿Gaixoak!

—Ori bera diot nik: ¡Gaixoak! Batzuek kaxkariñek badire, beste askok ongi ordaintzen dute...

—¿Elitzake obe izango, eku askotan eiten duten bezala, senar-emazteak elkarrengandik aldendu ta beste batekin ezkondu?

—Kason batzutan aldendu ditezke, baño beste batekin ezkondu, ez.

—¿Zeengatik?

—Jainkoak ezkontza ola jarri zuelako. Fariseuak, ezkontza auste ta beste batekin ezkontzea Moisek eskubidetu ziela esan ziotenean, erantzun zien Jesukristok:

«Zuen biotza gogorragatik baiezta zizuen Moisek agindu ori, baño asieran etzan ola. Beraz, emaztea zapuizten eta beste batekin ezkontzen danak, berearekin ezkontza austen du (Markos, X, 29).

—¿Jainkoak ola jarri bazun, ongi eongo a!

—Ezin ditek ukatu, kaso tamalgarrizkoak badirela. ¿Ezin elkar ikusi, ta elkarrekin bizi bear! Baño lege au lasaitzea, ardi korraleko ataka iri-kitzea bezala izango litzake, ta beti galduko luteke argalena: emakumeak eta semealaba gaixoak. Argatik jarri zigun Jainkoak: NAI DUNAK EZKONDU, EZKONDU DEILA; BAÑO, BAT BATEKIN, ETA ERIOTZA ARTE.

A. Astiz Arregi

AITA MOISES DOMENZAIN-EN OROITZAPENETAN

Joan den Andre dena Mari egunean, goizeko hiru orenetan pausatuta da gure ahide eta adiskide maite Moises Domenzain, Iruñeko seme ta misionest gartsua. Gure Xabier haundiaren ondorek ibilia da Japonen ezintasunez bete, bai eta ere alegerantzaz.

Orai dela urte bat abiatzen nintzan ni ere Japoniarat. Hori zen nere aspaldiko ametsa! Han ikusi ditut gauza miragarriak, bainan ez dut egun kondatuko luzezko litaketa; bertze alde, gure adiskidearen oroitzapena bakarrik dut gogoatuko.

Buruilaren 12-an, arratsaldean, Hiroshima-ra heldu nintzan. Hogoit ta hiru urte partitu zela Madriletik. Pentsatzen ahal duzue nola ginen bat eta bertzea berriz elgarrekin gertatzearekin, hainbat urten ondorek! Berak igorri z(id)an hitz bat zenbait egun aintzinean: «Mentira me parece que estás en Japón...» Beraz Hiroshima nintzan. Itzuli haundi batzu emanik, hiri ezin gehiagoko zabala baita, azkenean helduak ginen jesuiten etxerat. Han zegon gure beha atean, loren erdian, gure aita Moises bere bizar zuriarekin. Azkarki zahartua zen, ez zuen mihia zalu; bainan begietan ageri zen beti izan zuen gau hura, tittilla, alegera.

Hainbeste lanen ondorek, lehengo gizon zuhurrak bezala bizi zen ordukotz: «Ya no hago nada —erraten zuen—; ahora sólo espero a que Dios me llame para reunirme con los míos». Aintzineko ilabetetan hori bera igorri z(id)an mezu batean. Eta nik arrayerian ihardetsi: «¿Qué es eso. Un navarro sentido esperando la muerte?». Bainan berak ba zekien haren bizi ez zela luzatuko. Eritasunak, etsai zar bat bezala, joa zuen eta otortzean, gogoetakan, pasatzen zituen egunak.

IGANTZI (Yanci)

Abestitxo bat kantatu nai nioke Igantzi napar erriari, Bidasoako Bortz Errietatik txikiena dalakoz; ta ain zoragarria da aurtxo baten irripar garbia bortz senideko sukalde batean! Abesti bat kantatu, bai, zazpi-eun erriar oieri, Igantzien magaletan iaioak, bertan ikasi bai zuten euskal lendabiziko itzak, ta, eskutik elkar artuak, «Aita gurea» errezatzen.


Ta nere abestia agindarietako izanen litzake, lendabizi. Oiek, sortuerria benetan maitaturik, Igantzi erri orren zai bai-daudez, norbaitek ez ala uste arren.

Abesti lirain bat, baita, igantziar aur ta gaztedi zintzoari, ni ere gaztea bai-naiz, ta oiek in batera kezkatzen bai-nabil. Erlia maiatzako loretxo gorrien inguruan bezelaxe?

Kantatu nai nioke, baita, erri ortako gizon-emakume adintueri. Ta urrutu bizi diran erriareri. Ta, nola ez, Igantzian sortutakoak ez izan arren, erriar, bertzeakin anaiturik bizi diran oieri. Ta...

Benetan, gardelin umetxo bat nai nuke izan udazken ontan, abesti polit bat kantatzeko Igantzi erri ego-

Jesuiten etxea Hiroshima leku goxoan dago; ba du baratze eder bat inguruan, lore eta arbolekin. Mendizka baten aldean da eta xoko batean ba da kapera ttipiñi bat Andre dena Mariaren iduriarekin. «Aquí vengo a rezar todos los días —erraten zan—; Sabes que los niños vienen también mucho y esas flores sueltas las han echado ellos a los pies de la Virgen». Maite zuen bereziki Andre dena Maria eta begira nola Amak ereman zuen Agorrilaren 15-ean, bere festa haundian.




Xispa edo gatza hori ez zuen galdtu. Berriki, joan den martxoan, aurtun biziki berant helduak zituen turronez eskerrak ematean: «Al fin llegaron los ricos turrones y les dimos, la gloriosa sepultura, que se merecían».

Beste aldi batez, Madrilen, gari-zumako prediku andana bat eman zuen. —«Ay, chica, —erraten zan; harto sabe todo el mundo lo que tendría que hacer... empezando por tí, que estás engordando en Cuaresma». Ikus zazu zein finki zakien, erdi irriz, erakusten.

Bere misionest bokazioneaz mintzatuz oroit naiz nola aldi batez erran zidan, Donibane Garazi-n zuela lehen aldikotz deia senditu, Aita Candau zena aditu zuelarik hango elizan Japon-er mintzatzen. Japoina zen Xabierren lurra! Haren urratsak zendako ez segi? Ez dut ere ahanzten nola gainera erran z(id)an: «Si hubiera sabido vascuence, quizá no me habría ido a Japón». Maite zuen Eskual Herria, maite zuen beraz mintzatzea, maite zituen bihotzez gure kantuak, gain gaineko kantu eztiak —los de todo menor los verdaderos—, erraiten zuen bezala.

Feli Setoain de Luengo

Luzaide 1970.



kiari, «San Mikelak» bai dira; erriko bestak. Abeslari nai nuke izan, nere doña edatu dedil zeru zabale-tara Euskal-Erriko ezkil guztiekin batera.

MAITASUN, PAKE, ALAITASUN.

Artean, ta egunero bezala, untza abeslari «Piedad» gainean.

ANTHON

ERRIZ-ERRI



ETXARRI ARANAZ

siko da gaur egiten ari geran lanaren fruitua.

Diru lanbidean 'Principe de Viana' lagunduta gauden bezela, gure buruz ahal dugun guztia baliatzen joan

behar gera; herrian bertan dirua opatu eta ordaintzeko moduan. Ez «P de V.» baztarrean uzteko, ez; guri ematen digun laguntzarekin beste herri batzueri laguntzeko baizik.

Ikastola.—Joan berri den ikastaldi honen bukaeran gure herriarentzat ikastola zer izan den ikusi nahi genduke gaur. Lehendabizi, gure arteko guraso askok semeenganako zuten euskal kezka horri atera bide on bat eman zaito. Bigarrena, kezka hori egi bihurtzeko egin ditugun lanak adierazten dute, haurren nortasuna piztu eta zuzentzea ez dela bakarrik andereinoren lana; hauena eta gurasoena baizik.

Ikastola batzordekoak asko eta ondo lan egin dute. Uste ez dala gauzak lan haundia ematen dute, joan etorrikoak, billera eta abar. Eta denak beharrezkoak gauzak garbi eta zuzen eremateko. Gainera Etxarrin, leku askotan eze, zoritxarrez oztupo txiki batzuk izan ditugu; eta ez ikastolan, hain zuzen, gidarien billeretan baizik. Uste dugu datorren kurso edo ikastaldian ez dala holako gauzak gertatuko. Nafarroako Diputazioak sortuak diranez bere babesean ibiltzeko bideak lenbaitlen ideki beharrak daude aurrera idekiko direnak ahal den oztoporik gutxienean izan dezaten.

Ondo begiratuz oztupo hoiak ez dira hain txarrak izan. Prolema batzuk sortu dira eta hoiari buru emateko gurasoak elkartu behar izan dute, eta hortan esnatu da beren konzientzia. Gauzak diren bezela: oztupo hoiak txar baino mesede gehiago egin dute. Gainera gure haurtxoak hain ongi, hain garbi euskera mintzatzen dutela ikusirik, ibili ditugun nekeak ongi emanak direla ohartzen gera. Aurrera jarraituko dugu. Urte batzuen buruan iku-

ARTZAI TXAKURRAK

Denbora iluna zen abuztuaren 23-an. Emakumeentzat hotz bezela; hala entzuten genien beintzat. Hala ere, ez otzak eta ez euri itxurak ez zuen jenderik atzeratu. Sekula baino auto gehiago; 'Gainbera' txakurrendako utzi ta 'zelaia' autoentzat ideki behar lukete uarterrak. Lau bat mila jende izango omen zen larre inguruan. Eta ederrena, euskera bar-bar-bar baztar guzietan. Az-

kenean txakurreri ere euskeraz agintzen zieten gure artzaiak. Noiz ikasi dute euskeraz? Betei erderaz egin izan zaie. Auxe bai pozgarri.

HIRU URTEZ HIRU TXAPELDUN
Ez du txapelak buru batean hausterik. Hiru urtez hiru artzai ezagutu ditu: Uarteko Ricardo Goikoetxearen «Txiki» izan zen, duela hiru urte txapeldun. Bigarren urtean «Rubio», Urdiain-go Martin F. Galarza-rena. **Aurten Cirilo Askargorta, Andia mendiko artzai jatorrak, bere «Txiki» sorgin politarekin jaso du hirugarrena.**

Ba ziren beste sari batzuk ere, baina beren lekuan gelditu dira. Odol garbiko txakurren saria «Txiki» Goikoetxearenak darama beti. Artzai-jantzi egokiena Zirilo Askargortarena izan da hiru urtetan eta, zer esanik ez, artzai herrikoiena bera zen.

'Aralar Mendi'—taldeko mutilak beste lan on bat egin dute txapelketa hontan. Urte gutxi gauza asko eta onak. Txitu soinuak eta dantzariak euskal kutsu goxoa ematen zioten euskera galtzen utzi duen herriari. **Gaztedi honek hauxe falta du euskaldun oso izateko: euskera.** Eta merezi luke gure jatorren artean sartzea.

Nik askotan esaten dut Iruñako hiri nagusiak eta Tafallak, Lizarrak eta Tudelak kemenez hartu duten ikastolen lanbidea zoin egokia laiken Uarterako. Sei zappi urtez bere nortasun osoa lortu lezake haurrekin lan eginez. Dantzari taldea atzeratzen duenak egingo luke errezago dena.

Bitartean, euskal giro goxo bat hartzen dijoa Uarteko herria. Hona hemen lehen sariak:

- 1.º 'Txiki', Cirilo Ascargorta-rena. Lizarraga-koa.
- 2.º 'Lista', José Lacunza, Mendinue-ta. Arbizu-koa.
- 3.º 'Rubio', Martin F. Galarza. Urdiain-go.
- 4.º 'Txabal', Pascual Gil. Urbasa mendikoa.
- 5.º 'Txabal', Javier Beregaña. Uarte Araquil.
- 6.º 'Txiki', José Irigoyen. Urdiain.

ARBIZU

—Herriratu, hau da etxeratu dakigu Ijurretar Benito. Buenos Aires-ko parroki batean zegoen ta etorri ere etorri dakigu. Baina orai era bat. Oñati-n gelditzeko asmoezkin etorri dakigu. Gauz batzuetaz mintzatzera etorria zen. Izan ere, beretarrekin konponketa batzuen bila zebilen. Baina geroz. Oñati-n gelditzeko dala jakin dugu. Zer dala ta aldaketa hau? Ziur ziur ez ba gaudere, hau da batzuek diotena: gelditu dedila eskatu omen diote. Beraz, Oñati-n gauzak konpondu beharrean arkitzen zalarik, bertan igaro izan du une luzeena, baina bere sort-herrian ere igaro ditu bere

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

SAGI

1970 - Baztango Idatz - Sariketa

«Institución Príncipe de Viana'ko Euskeraren aldeko Sallak antolatuturik eta Baztango Balleko laguntzarekin, aurten ere «Idatz-Sariketa» izan dugu. Idatz-Sariketa hontan sar zaitezken zappi urtetatik amabortz urte bizkitarteko aur baztandar guziak eta idatzlanak, gertakari, sorgin-kontu, ele xahar edo bertze zerbitz holako gaiari buruzko eginak dituzte. Igaz bezala aurten ere «Idatz-Sariketa» honek izan du erreskita eta egia aurtengo lanak igazkoak baino aunitzez hobeagokoak izan dira. Sariak joan den urtekoak bezalaxeok. Lehendabizikoak 800 pezeta. Bigarrenak 600 Irugarrenak 500. Laugarrenak 400. Bortzgarrenak 300. Gero bortz sari 200 pezetakoak, sei sari 150 pezetakoak eta gainerako idazguziei 100 pezeta bakoitzari.

Erratzutik 32 lan hartu ditugu, Arizkundik 18, Aniztik 6, Elizondotik 4, Lekarotztik 4. Arraiotztik 2, Almandoztik 2, Zigatik 2 eta Amaiurtik 1. Denetara 71 idazle.

Azpilkueta, Eluete, Gartzain, Irurite, Oronoz eta Berroetatik ez dute deus igorri.

Juradoaren erabakia hauxe izan da:

Lehendabizikoa: **NORBERTO AGERRE**. Almandoztarra. «KITO TRATULARIE».

Bigarrena: María Teresa Iriarte. Arizkundarra. «Astoa ez kile yotzen».

Irugarrena: Félix Inda. Amaiurtarra. «Bortz urte nituelarik neri pasatuteko kontua».

Laugarrena: Dominika Etxart. Erratzuarra. «Gertatue».

Bortzgarrena: Juan Etxart-Erratzuarra. «Neri aitei aitue».

Seigarrena: María Lourdes Iribarren. Erratzuarra. «Gure etxean pasatua».

Zazpigarrena: Ana María Etxart. Erratzuarra. «Nere amari aitue».

Zortzigarrena: Maite Mortalena. Erratzuarra. «Salomon eta zakurrak».

Bederatzigarrena: María Pilar Gortari. Erratzuarra. «Azari kontua».

Amargarrena: Felisa Ugarte. Arraiotztarra. «Arrayotzko herritik».

Abuztuaren 31'ean Elizondoko Salon Parroquial delako etxean ospatu zen Sarien Banaketa, Diputazioneko eta Balleko Etxeko Aintzindari jaunak Maiburuan zaudelarik.

Sarien Banaketa egin ta ondoan, Urmeneta eta Hualde jaunak itzalditxo bana egin zaukuten, baztandar aurrak eta euskara gorai-patuz.

Idatz-Sariketa hauek ez ginuke utzi behar eta urtero egin behar ginuke, gisa hontan auskal-kultura indartuko baita eta aurrei eta gainerakoei ere zaletasuna piztuko baitzaiote.

Gauzak ongi goatekotan idazle ta irakurle aunitz behar ditugu eta hortarako indartu eta zaindu dezagun gure mindegitze, landareak ongi errotatu daitezten.

Zorionak aur baztandar guzietari eta gure eskerrik beroenak Nafarroako Diputazioneari eta Baztango Balleko Etxeari.

M. IZETA

(Urrengo numeruan IDATZ-SARIKETA hontan gertatu zan kontu-irabaztailea argitaratuko dugu.

Lakuntza

LAKUNTZAKO PERTZA



San Migel eta Lakuntza ez dira biak alkarren ondoan baina soka mutur batekin lotzen hasiak dira aspaldi hontan. Lehen, Aralar mendiko bidea Sakana zuloatik gora zelako, eta orai gaztedia ibilkari egin zaigulako, San Migel gaineko festak Lakuntzako plazan du beti azken dantza. Korpus eta Solbezio dira bi egun haundienak.

Lakuntzarrak ere ba zuten noizbait beren San Migel-a igotzeko eguna, «Amaletari» esaten ziotena. Malkor gaintetik pertza erori ta tripota lehertu ba zen ez ba zen, gusto txarra utzi zien lakuntzarrei egun honek. Ez zuten halakorik entzun nahi izaten. Baina denborak harri biziak ere leguntzen bai ditu, orai lakuntzarrak pozik daude beren pertzaz eta urtetik urtera festa gora dijoa.

Hiru lau urte izango dituzte gauzak. Zaharrak nahiko odol gaizto egina zutela ta tripota (odolki) goxo batekin poztu behar zituztela gogoratu zitzaion norbaiti. Esan da egin. Ibiltzeko on dena lotsa da gaur herrian gelditzea. Eta zer alkartasun jatorrean egiten dituzten beren hartu emanak!

Abuztuko Andra Mari ondoreko igandea seinale. Goizeko seiretan askatu zuten ganbelatik astoa eta bizkarrera bota pertza. Gutxi dira astoaren pausuan bide guztia egin nahi izaten dutenak. Ez dakite zer den filosofia: izerditu gabe mendira igotzea. Gero, atzetik etorriko dira hats haunditurik, berek dakite nola. Zaharrak berriz autobusean Lekunberrietik barna.

Norbaitek esan du tripota gehienak leherturik atera zirela; nork arrapa lezake zopa haunditan haren salda beltza! Eta denetan hoherena, eliza ere jendez lehertzen... Hala dira lakuntzarrak, ardo zahar kemen-tsuak zagi berritan sartzen dakitenak, Lakuntzako pertzaren lotsatik festa jator hau egiten bezela. Ez da oztipuduko sekula, eta gero ta hobe. Aurrera mutilak!

unetxoak. Ta igaro dan ilabetean ez da geldirik egon. Bi irteera edo eskursio prestatu zituan. Bat Aranzazu ta Loyola-ra ta bestea Lourdes-era. Eskerrak herriaren alde arduratu zeralako. Ta gure artean gelditu zerala jakitean poztu egin gara benetan. Berriz ere laguntzen jarraituko diguzulakoan gaude.

—o0o—

—Principe de Viana-ri eskerrak euskal jai bat antolatu genuen ta gogoan ditugu Aldundiak emandako 5.000 peztak. Eskerrak.

—o0o—

—Dagonilak 23 zuela, Arakil-eko Huarte-n Nafarroa-ko artzai txakurren txapelketa egondu zen. Amabi zakurretatik bigarren gelditu zen arbizuarrarena. Txakur honen izena «Lista» zen. Ongi erantzun zion dagonion izenari. Artzaiak, berriz, Lakuntza-tar Joseba, «Joxe». Lehenengoz izanen da ateratzen dala arbizu-uar bat olako txapelketan ta bigarren egin. Txakur gaztea du ta pixka bat irakasten dionean nork irabaziko dio gure Jose-ri? Zorionak Joxe. Guretzat ik egin uan ongien.

—o0o—

—Argi-Bidea-ko gazte batzuek izketaldiak gerta nahian dabilta. Herri-ritar danori dagozkigun arazoak ikutu nahi dituzte. Baina hortarako arazoak zein diran jakin behar dira. Galdera batzuek gertatzen ari dira. Batez ere jendearen erantzunetan herriarrak zer nahi duten jakin dezaten. Gerta ongi gauzak.



LUZAIDE

Bordel bertsulari zaharrari omendia egin dio Luzaideko herriak. Harrieder bat ezarri dio bere sort etxean eta denbora berean gauza jakingarriak entzun ditugu. Hona festa eguneko puntuak:

11 orenetan Meza Nagusia. Dena eskuaraz.

Meza ondotik Bordel-eko haurtxo baten bataioa.

12-tan Harriaren agertzea. Gero, Herriko etxean abesti eta hitzaldiak:

1.ª) Juan Cruz Arrosagaray. Festari buruz berak egindako bertsuak abestu zituen.

2.ª) Alkate jaunaren ongi-etorria.

3.ª) Bordel bertsulariaren biziaz J. M. Satrustegi.

4.ª) Juan Cruz Arrosagaray-ek Bordelen kantu batzu abestu zituen.

5.ª) Antonio Arrue. «Bordel Donostian soldado egon zeneko gertakizunak».

6.ª) «Donostian soldado» izeneko kantuak abestu zizkigun Beñardo Lapeyrek. Kantari politik.

Eta hauen ondotik bazkaria. Atsaldetan Arneguy-ko bestak. Ba dute errekesta Luzaideko Bolantak; han-txe ziren auzo herrian. Luzaidek gauzak ongi egiten ba daki eta, sobera espantu gabe, xarmanki egin zuten Bordel-en festa. Zorionak.

Batasunari buruz solasak

Lehenagoan, mintzairaren batasunaren premia azaltzen genuen. Hortan, denok akort gaude. Baina erraten genuen bezala, batasunak ameka kondizionamendu daduzka; eta etxea nola izanen den aztertzen asi baino lehen, funtsa eta oinarria taxutu eta finkatu behar direlaren ustekoa naiz. Izkuntza bat mintzatzeko (idazteko, bizitzeko) eta gizonen arteko lanabesa denez gero, zer gizonak, nongoak, nola eta abar konkretatzea derriorezkoa iduritzen zait.

Gu egun, bizitzarik nahi baldin badugu, gure mintzaira egungo industrial-gizarteari doakion izkuntza motaren egokitzeko beharrean aurkitzen gara. Ez bai gindezke bestela. Baina gogoan ar dezagun gauza bat: herri bat, kondaira zehar eta ameka kondizionamendu direla medio, eskualde batean kokatzen, ezitzen eta bizitzen dela; eta herri hori, bere mintzaira eskualdearen bazter guztietar bat barreiatzeko eskubidearekin dagoela. Gurean, batasunaren billa baldin bagoazi, gero Euskalherriko lau kantoietan sartu ahal izateko da. Gastehizetik Mauleraino, eta Sestaotik Muskariaraino. Barakaldon ala Lizarran ikastola baten kokatzeko, Elizondon eta Amezketan bezainbateko eskubidea dadukagula. (Nola eta, beste problema litzake).

Batzuek batasuna, egungo egunean euskeraz mintzaten den tokietarako nahi omen dute. Hori zuzenki gure izatearen eta gizonen eskubideen aurka doan nahikaria da; eta bestaldetik ez ditaken gauza. Zer da bada, Lekarotzen bai eta Tafallan ez, Elorrion bai eta Portugaleten ez erratea? Nondik norat? Zer oinarri mota da hori? Batzutan, etxe batean lehen bizitzakoak euskaldunak direla eta bigarrenak ez izatea gertatzen da, eta orduan zer? Lehenengoak Euskalherri dira eta besteak ez, ala? Horren kriterio ximplez mugatzen ahal da herri bat? Eta areago egungo eguneko egoeran...

Herri industrializatu baten «izkuntz arronta», ez da kondizione konkretu batean mintzaten dena, herri horrek akats eta oztopo guztiekin aukeratu duena baizik. Adibideek gaituzte argituko: horrela pentsatzen dutenak, Arjelian arabizazioaren kontra egonen dira naski; Angolako mintzaira jatorra portugesa izanen, eta Viet-Namengoak anglasa. Bai alajaina! Garbi asko ikusten dugu bai, mundua zehar nondik norat doa nahikari hori. Zauriaren gainean pikoak, gure antziñako erran-merran batek daukun bezala.

Gizonen nahiaren aurka erdietsirikako urratzeko eskubiderik ez badugu; besteek dadukatena, ez eta gurean ere ez badezakegu. ez gaituzten kiriketan josta!; horrela pentsatzen dutenek ozen eta klarki erran bezate, eta bakotxa nondik dabillen beinpein, jakinen dugu. Zeren eta, batasuna lau katuen artean xoilik erabiltzeko nahi baldin bada, obe dukegu deusik ere ez egitea, eta euskera bere euskalki eta jatortasun guztiekin, deus eta nehor bortxatu gabe, berez hil ditezten uztea. Baina orduan, deusetarako ere balio ez duten biltzarrak, mintzaldiak, liburuak eta abar, ez ditza-gun antola eta presta; ez eta ere denbora gal! Alferrik litzake eta.

Erran gabe doa, ez nauzutela iritzi hortakoa, eta horrengatik, arraintxoari ura baino premiatsuago zukun batasunaren aldeko naizela. Baina bere sakontasun osoan. Benetan responsable izateko, beste biderik ez dela uste bai dut.



Esaldien eta itzulpenen euskal kutsua (II)

Izen arrotzak eta izenburu zailak ez dira euskeratu behar, izkuntza landuek usatzen duten bezala. Noizpait irakurri dugun... **Justiziaren Lege-Arautua Egitamu aurreko**... esaldia geyenek eztugu ulertzen; erderaz, dagon bezala utzi behar da.

Halaber... **Lege-lkaskua eta Madrilgo Lege-lrakaskintzan Eskubidearen Filosofia**... euskal itzulpenean, erdaraz uzten da. Kasu horietan denean, erdel izenburuaren ondoretik... **dalako**... itza ezartzen oi dute idazle onak.

—**Eziera eta Jakintzako Ministerioa** — izenburua, euskeraz idaztean — **Educación y Ciencia** — **dalakoaren Ministerioa**, argiago legoke, alemanez ere oi duten bezala; adibidez... **Informations Bureau der Subsecretaria de Tu-**

rismo... irakurtzen dugu Aleman txosten batean. Eta **Observer** ingles egunkarian... **sun blistered badlands of Baja California**... ikusten dugu; beste aunitz etsenpluen artean.

Irakurri izan ditugun; **Izui-karako errutzat**... **Izadi**... **Eralguntza**... hitzak, geyenentzat ulerkaitz egiten dira; uste dugu... **Terrorismo dalako erruduntzat**... **Natura**... **Organizazio**... adiarazi nai dirala.

...**Ikastola legetzea**... baiño argiago... **legemenera ekarri**... idatziko genuke... **Gazteek dute itz**... ezta euskerara, erdi erdera baiño; ...**gaz-**

teen aldia da... esan behar litzake euskeraz.


-**X**- soñua, kasu berezietan usatu behar da; ...**Sistema juntuagoa**, -**x**- letrak in idatziak —gauza eskasa— adiarazten du; ...**Sistema juntuagoa**... -**s**- kin, gauza zuzen bat da; -**zuzen**- gauza bat da, eta -**xuxen**- beste bat.

-**Gizona** -**z**- letrak in, gizon osoa da; -**gixona**- berriz, gizon kaxkarrak. -**Basajaun**- eta -**baxajaun**- ez dira berdin; ez eta -**sosa**- eta -**xoxa**-.

Azken hauek karikatura bat ematen dute.

A. Apat-Etxebarne

LEIOZ LEIO (II)



Etxeak bereak daramazkin bezala, guk ere geren leioak (begi, belarri, sudur...), daramazkigu gorputzean; oien bidez gure barrera argitzea; gure barrera arnasgai ona sartzeko; gure barrera lana pozik egiteko; gure barrera bakean poza arkitzeko; bai ta ere kanpoan gertatzen den ona leio oietatik ikusteko, gerengana bil dezagun.

Leio ok geienean itsirik, zikindurik, ttipiturik balituzte bezala bizi dire zenbait, barrera beharrezkoa zaien argia beren kaltetan letorkelako ustean.

Zer argitasun edera sar ditek gure barnera gorputzean daramazkigun leioak, behar den ordu ta eran, aski garbi ta aski zabal idukitzera saiatzan bagara!

Bizulekuak bezala, arnasgai garbia behar dio ekarri izpirituari gorputzak. Arnasgai zikiña sartzen zaion izpiritua, laister edo luze ondatzen da. Kontuz ibili bedi anima arnasgai ona leioetatik artuz ta arnasgai txarrari leioak itsiz. Etxearen iabeak noiz leioak iriki noiz itsi dakien bezala, gorputzaren iabe den izpiritua ere, noiz gorputzeko leio oiek zabal ta noiz bil iakin behar du, on ta txar nahaste, barrera pozoinduz, ontako artu gabe.

Lana egiteko dabil munduan izpiritua: ortarako eman zaio bizilekutzat gorputza. Lan on eta pozik egiña izatekotz, kontuz ibil gaitzen leioekin, gaizki argituak izateko arrixuan gaude ta bestela. Gaizki argituak izateak lan txarra egitea edo lan onean bortxakara aritzea dakar: eta bi gaitz ok argi onari iarraizik bakarrik garaituko ditugu gubaitan.

Bakea nai ta naiezko du, pozik arkitzekotan, izpiritua. Erne ibili gaitzen leioekin, bake au zainduz, eta on au gaitzeko arrixua datorrigunean leioak itsiz, eta bakearen indartzale zaigun zerbait biltzen al dugunean ongi zabalduz. Izpirituaren nahasaldiak eta biotzeko bakearen gaitzeak gorputzaren leio oiek kontuz ez ibiltzetik sortzen zaigun aunitzetan.

Kanpoan gertatzen den ona ikusteko ere on zaizkio animari gorputzean dituen leioak. Begiz, belarri, usmoz... zer zaion kalte ta zer on ikus dezake izpiritua, bere inguru ongi begiratzen badu beintzat; eta, kaltegarritik ihes egiñez, aute dezake ona. Baiña ongi begiratu behar ontan dago gure zailtasuna; ez zaio, bada, bere inguru dabilen guzia on izpirituari, iñolaz ere. Eta kaltegarri dena onaren iauntzi apañakin agertzera aspalditik oitua daukegu mundua.

On gutti dabillela gure inguru? Baliteke! lende geiena gaurkora, orduan ordukora bakarrik lotzen dela? Badirudi! Deporreak, iostabideak, kurri ibiltzeak, besteak, atsegiñekin al bezein ongi ase naiak, dirua bide errexenetik eskuratzeko, iendeen artean aipatua izateak eta abarrekin loturik dauketela gaurko giza-emakumea? Ortze-ortxe!

Eta bizkitartean, egiz balio duen ona, geienentzat, baztertua gelditzen dela eta geienak itsu ta gerokoak ilun arkitzen direla? Bide ilun ortatik iarraizik, nai te naiez!

Ilunbe onen zoritxarra geroak adieraziko daku, geren kaltetan gañera, ez bagara seurik ordua dela lozorrotik esnatzen eta gure leioetaz, izpirituaren onetan, oraitik bertatik beti ongi baliatzen.

Ur zikiña doan bezala geien okin batean gainbehera io beharrean, goazen gu beti gora geren nortasuna sendotuz ta egiz ona zaigunari bere balioa emanez.

Ona ongi autatzean eta autatuari ongi iarritzean daukegu geren buruaren iabe izanez on zaigunaren iabe ere izatea: berdin euskaltasunean nola kristautasunean.

IBARRONDO

Lamixarrak Lamiarritako aurtxoei

Baztangoitzako ur garbi otan bizi izan gara pozik Lamiek. Yende guziekin, ta beti, ongi etorri gara; bakea maite duten yende guziekin. Lamiek, ez gara sorgiñek. Denei al dugun ona ekartzera saiatu gara beti, naiz aberastasunik iñori ekarri ez; badakizue, bada, aski ongi, aberastasun utsean ez dagola egizko zorionik. Lanerako errextasuna (berezko ori) eman diegu gure inguru bizi izen direnei: zurgintzen, argintzen, errotzaingoan... ogibidea izaten denei lagunduz. Gure inguruko yendeak elkarrekin ongi kontontzen direla ikustea ere beti atsegin izan zaigu, guk elkarren artean umore ona plantatuz, ereinez; ta ortarako emengoen artean txistulari ta atabaldari atsegiñek argituz. Gure ur-lezetik atera ta or goiti, Otxasko aldera edo, arrotzen ginean, zer poza gurea inguru oketako yendeak bake-bake lanean, elkar la-

gunduz astelanetan eta arin arin dantzat ta kantari besta egunetan elkar poztuz ikusten ginituenean!

Nasturi bat izan ginuen; ez guk naita ala ere. Gure ur-leze ederra ondatu zitzaigun: sorginek lan txar ortan sartu ote zitzaizkigun gaude: ta bizitegiz aldatu bear izan ginuen. Atsekabe aundia gurea!

—o0o—

Noizean beinka agertzetxo batzuk egiten ditugu Lami-putzu izeneko tokira ta bere inguruetara: ta zenbait oiture on oiñdiken bizirik dabilzikizutelako pozak betetzen gaitu, naiz lengo kantu eta txulubit soñuek ez ditugun orduan bezein oxen ta sendoak entzuten.

Atzinemen aundiak ikusten ditugu zuen artean. Gu or bizi giñenetik aunitz aitzinetu duzue inguru oietako yende argi oiek. Denek ikasten duzute eskoletan. Au atsegin zaigu Lamiei ere: gure lana, onean argitzea baita.

—o0o—

Ikasi! Ikasi aunitz! Ikasteak ona dakar ta berekin! Non ta ikasi bear den ona ikasten den; txarrerakoan saiatu gabe. Txarrerako iakitatea ez dugu Lamioak iñolaz ere zuendako onartzen. Aurrera, onean, mutillak! Ikasi aunitz, aspertu gabe.

Baiña, etxean ikasitako ona ere gorde buruan ta biotzean: zuen xaarrek erakutsitako ona. Zerukoekin solas batzuk egiteaz ez antzi Yin-koaz; ta zuen xaarregandik ikasitako eskuara ederra ere ez zokoratu.

Eskuarez aazten ari zeatelako errua, kulpa maxtra gaixo bateri bota zaio aurtan naski...

Ez, aur gaixoak, ez: ez dago errua, kulpe, maixtara ortan iñolaz ere. Lenagotik zuen artean sartu zaitzuen gaitza da eskuara zuen biotz ta agotik ixiltze au: ta aitzinat ere yarraikiko du gaitz onek, ez bazerate zuék, zuen guratsoak ta zuen gidari dituzutenak, bein betiko, eskuararen pizten ta indartzen sendoki abiatzen.

Gure errana ez gaizki artu, aur maite ok: zuen onagatik erraten datzutegu-ta. Gorputzez indartu, animes kementsu, elkar maiztazale, euskeltzale ta guzien gañetik Yaungoizokale nai zaituzte ikusi, zuen aitzinekoen antzera, Lami-putzuen bizi izeneko.

LAMI ONAK

